

Marineren gutuna eta kutxa ebakigarria:

Kaixo, abenturako kideok:

Marine dut izena, eta beste kanpaina batzuetatik gogoratuko nauzue, seguruenik. Ikasturte honetan, Senegalera hurbilduko da. Oso pozik nago nire herrialdeko miragarriak erakusteko abagunea izango dudalako. Zuon laguntza oso garrantzitsua izango da, eskolapioek herrialdean dituzten 5 barnetegietako hezkuntza hobetzeko. Hori dela eta, nire herrialdeko altxor handienetakoa partekatu nahi dut zuokin. "Teranga" du izena, eta ez da ez objektua, ez lekua, Senegal bisitatzen duenak berehala ezagutuko duen zerbait baizik. Honako hau da "Teranga": herrialdera iristen diren guztiak euren etxean egongo balira bezala sentitzea. Hau da, garrantzitsuena ez dira gauzak, nola partekatzen ditugun baizik. Senegalen uste dugunez, mundua leku hobea izan daiteke, hurbilekoei beti laguntzen ikasten badugu eta ingurukoek zer behar duten badakigu. Altxor hori partekatu nahi dut abenturazale guztiokin. Niretzat harrigarria izan zen leku askotan "Teranga" ezagutzen ez dutela konturatzea. Hori dela eta, nire herrialdean egiten dugun bezala partekatzen irakatsi nahi diot munduari.

Zuok... baduzue antzekorik? Zein da zuon altxorra? Ziur zuon ingurunean ere badaukazuela munduari eskaintzeko moduko altxor esanguratsuren bat.. Partekatu nahi izango duzue?

Besarkada bat,

Marine



